

LARRAULGO TOKIKO AGENDA 21

Ekintza Plana

2012KO EMAITZAK



Tokiko Agenda 21eko ekintza planen
ebaluaziorako zerbitzua



TA21EKO BEHATOKIA
OBSERVATORIO AL 21
GIPUZKOA



Gipuzkoako Foru Aldundia
Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio

Dokumentu honen helburua, udalerriko ingurumenari buruzko informazioa eskura izatea da, horrela, udal kudeaketaren gardentasuna eta herritarren parte hartzea bultzatuz.

Txostena gure udalerriak *“Udalerri gipuzkoarretan 2012eko tokiko ekintza planen ezarpen mailaren ebaluazioa egiteko laguntza zerbitzuan”* parte hartu izanagatik eratorria da. Hau Gipuzkoako Foru Aldundiak urtero Udalsarea 21eko kide diren udalerrien artean bultzatzen du, eta Sareko udalerrri guztiek metodologia komun bat jarraitzen dute.

Zerbitzu honen baitan, Ekintza Planaren ebaluazioa burutu da urteroko ezarpen maila ezagutzeko. Guztia, Udalsarea 21ek horrelako prozesuetarako prestatutako Gida metodologikoaren irizpideak jarraituz egin da.

Guzti hau, Tokiko Ekintza Planean inplikaturako udal langileen parte hartzeari esker egin ahal izan da, Tokiko Agenda 21aren baitan egin diren ekintzei buruzko informazioa erraztu baitute.


Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorreko Departamentuak kontratatutako kanpo laguntza teknikoa jaso du zerbitzuak. Honek, zerbitzuan parte hartu duten 43 udalerriei laguntza eman die eta prozesua orokorrean bideratzeaz eta ebaluazio bakoitzean Gida metodologikoan ezarritako irizpideak betetzeaz arduratu da.

LARRAULGO TOKIKO AGENDA 21

EKINTZA-PLANAREN EZARTZE-MAILAREN EBOLUZIOA

Urtea	Ezartze-mailaren %
2006	22%
2007	29%
2008	46%
2009	51%
2010	55%
2011	58%
2012	63%

EKINTZA-PLANAREN EZARTZE-MAILAREN EBOLUZIOA



PLANAREN EZARTZE-MAILA, URTEA ETA ILDO ESTRATEGIKOEN ARABERA

Urtea 2012

LE1. ETXEBIZITZA, OINARRIZKO ZERBITZUAK ETA BIZI KALITATEA BERMATU	Ekintza kopurua	Guztiarekiko %	Ezartze-mailaren %
Hasteko	4	15	0
Hasita	2	7	2
Aurreratuta	5	19	9
Amaitzen	9	33	25
Amaituta	7	26	26
Guztira 1 ildoa	27	100	62
LE2. HERRITARREN MUGIKORTASUN BEHARRAK IRAUNKORTASUN IRIZPIDEEKIN ASE.	Ekintza kopurua	Guztiarekiko %	Ezartze-mailaren %
Amaitzen	2	33	25
Amaituta	4	67	67
Guztira 2 ildoa	6	100	92
LE3. UR/ENERGIA/HONDAKIN ZERBITZUAK HOBETU.	Ekintza kopurua	Guztiarekiko %	Ezartze-mailaren %
Hasteko	1	6	0
Hasita	1	6	2
Aurreratuta	2	13	6
Amaitzen	3	19	14
Amaituta	9	56	56
Guztira 3 ildoa	16	100	78
LE4. UDALERRIKO EKONOMIAREN SUSTAPENA ETA DIBERTSIFIKAZIOA LORTU	Ekintza kopurua	Guztiarekiko %	Ezartze-mailaren %
Hasteko	3	75	0

**PLANAREN EZARTZE-MAILA,
URTEA ETA ILDO ESTRATEGIKOEN ARABERA**


Urtea 2012

Aurreratuta	1	25	13
Guztira 4 ildo	4	100	13
LE5. BASERRI BIZITZA MANTENDU ETA SUSPERTU, NATURAREN, PAISAIAREN, ONDARE KULTURALAREN ETA HERRI NORTASUNAREN MANTENUAN DUEN GARRANTZIAREKIN UZTARTUZ	Ekintza kopurua	Guztiarekiko %	Ezartze-mailaren %
Hasteko	2	40	0
Hasita	2	40	10
Aurreratuta	1	20	10
Guztira 5 ildo	5	100	20
LE7. UDAL KUDEAKETA HOBETU ETA HERRI KOHESIOA SUSTATU	Ekintza kopurua	Guztiarekiko %	Ezartze-mailaren %
Hasita	3	43	11
Amaitzen	1	14	11
Amaituta	3	43	43
Guztira 7 ildo	7	100	64

PLANAREN EZARTZE-MAILA, URTEA ETA ILDO ESTRATEGIKOEN ARABERA

Urtea 2012

Ezartze-maila ildo estrategikokiko



LARRAULGO TOKIKO AGENDA 21

EKINTZEN EZARTZE-MAILA, EPEAREN ETA LEHENTASUNAREN ARABERA

Epea: Laburra

Ekintza	Lehentasuna	Ezartze-maila
E.1.1.3. Aparkaleku aukera berrien kokalekuak aztertu.	Altua	Hasita
E.1.2.3. Herriko tabernaren etorkizuna, funtzionamendua eta esleipena, besteak beste tabernak etxebizitzari lotu beharko lukeen hausnartu eta eztabaidatu.	Altua	Amaituta
E.1.2.5. Komun publikoa jarri balionanitzeko eraikinean.	Altua	Amaituta
E.1.3.2. Etorkizuneko beharretan pentsatuz, haurtzaindegi zerbitzua ezarri.	Altua	Amaituta
E.1.4.2. Sendagilea astean behin edo bi astetan behin herrian izateko aukera tanteatu.	Altua	Aurreratuta
E.1.4.5. Larrialdiko pisua, eta edo pisu tutelatua jartzeko aukerak aztertu.	Altua	Hasteko
E.1.5.1. Balioanitzeko Zentroa kudeatzeko aukerak zeintzuk diren ikusita, herritarrek eta udalak erabaki dezatela zer egin nahi eta ahal den.	Altua	Amaitzen
E.1.5.3. Museoaren etorkizuna eztabaidatu herritarren eta udalaren artean	Altua	Amaituta
E.1.6.1. Euskaltegiarekin hitz eginda, urtean behin, udazkenean, euskarako hastapeneko ikastaroak emateko deialdia egin, eta nahikoa jende izena ematen badu, ikastaroa antola dadila bultzatu.	Altua	Amaitzen
E.2.1.1. Herrira doan errepidea zabaldu eta hobetzeko beharrak eta aukerak aztertu Foru Aldundiaren proposamenarekin batera.	Altua	Amaituta
E.2.2.2. Edukiontzien gaia, parkea aldatzearena, aparkalekuak prestatzearena eta plazaren antolaketa, guztia kontuan hartuko lukeen hausnarketa prozesu baten bidez bideratu.	Altua	Amaituta
E.2.4.1. Udal irisgarritasun plana egin.	Altua	Amaituta
E.3.1.1. Herri bilera bat egin, Ur Kontsorzioan sartu ala ez eztabaidatu eta erabakia hartu.	Altua	Amaituta
E.3.2.1. Erabilera anitzeko eraikuntzan eguzki indarreko plakak jartzeko aukerak aztertu.	Altua	Amaituta
E.3.2.2. Gas hornidura depositu bakarrean bateratu.	Altua	Amaituta

EKINTZEN EZARTZE-MAILA, EPEAREN ETA LEHENTASUNAREN ARABERA

Epea: Laburra

Ekintza	Lehentasuna	Ezartze-maila
E.3.4.3. Traste handiak, arropa, etxeko hondakin arriskutsuak eta olioak jasotzeko egunak zeintzuk diren komunikatu herritarrei.	Altua	Amaituta
E.3.4.4. Herria hazten doan neurrian edukiontzi gehiago ipintzen joan, eta zabor bilketaren maiztasuna egokitu.	Altua	Amaitzen
E.7.3.4. Tokiko Agenda 21en baitan Herri Batzarrak egiten jarraitu.	Altua	Amaitzen
E.1.1.2. Baserrietan etxebizitzak egiteko edo egokitzeko araudia herritarrei azaldu, eta udalaren aldetik fiskalki dauden hobariak agertu, eta bestelako erakundeek ematen dituzten dirulaguntzak azaldu.	Baxua	Hasteko
E.1.2.4. Kutxazaina, eta ostatutik kanpo dagoen telefono publiko bat ipintzeko eskaerak tramitatu.	Baxua	Aurreratuta
E.1.3.3. Haurrentzat, eskolaz kanpoko aktibitateak antolatzen jarraitu, herritarren beharretara egokituz, orain arte egiten den moduan.	Baxua	Amaitzen
E.1.4.1. Etxeetan bakarrik bizi diren pertsonen osasun eta gizarte zerbitzuek eskaini diezazkieketen laguntzei buruzko informazioa zabaldu.	Baxua	Amaitzen
E.1.5.2. Balioanitzeko eraikinean ikastaroak (gimnasia, aerobic...) burutzeko gela bat egokitu.	Baxua	Amaituta
E.1.5.5. Kultur ekintzen ordutegiak eta gaiak jende mota desberdinentzako egokitzen jarraitu.	Baxua	Amaituta
E.1.5.7. Udalak eskaintzen dituen aktibitateetan segurtasuneko baldintza minimoak bermatu, eta herrian antola litezkeen auzolanak aseguratu.	Baxua	Amaitzen
E.1.6.3. Herriko erdaldunei euskalduntzen laguntzeko baliabideak ipini.	Baxua	Amaituta
E.2.2.1. Herri barruko abiadura mantsotzeko seinaleztapena hobetu edo koskak ipintzeko aukerak aztertu eta baloratu.	Baxua	Amaituta
E.2.3.1. Garraio publikoaren zerbitzuari buruzko informazioa zabaldu.	Baxua	Amaitzen
E.2.3.2. Bono-taxi zerbitzuaren inguruko informazio gehiago eskaini herritarrei.	Baxua	Amaitzen
E.3.3.1. Energia berriztagarrien erabilera bultzatzeko neurri fiskalak ezarri, eta hobariak herritarrei komunikatu.	Baxua	Amaituta

EKINTZEN EZARTZE-MAILA, EPEAREN ETA LEHENTASUNAREN ARABERA

Epea: Laburra

Ekintza	Lehentasuna	Ezartze-maila
E.3.4.1. Zabor organikoaren bilketa mankomunatua ezartzeko epeak eta baldintzak azaldu herritarrei.	Baxua	Aurreratuta
E.3.4.2. Zaborren kudeaketaren tasak kostuekin orekatzeko plangintza bat ezarri.	Baxua	Amaituta
E.3.4.5. Mankomunitatearekin aztertu birziklapeneko edukiontzien biltze maiztasuna egokia ote den.	Baxua	Amaituta
E.3.4.6. Kontzientziatzeko kanpainak egin sektore desberdinei zuzenduak: herritarrak, baserritarrak..., Mankomunitatearen bidez.	Baxua	Amaitzen
E.3.4.7. Enpresetako hondakin arriskutsuen kudeaketarako Gipuzkoako Merkataritza Bazkudearekin Mankomunitateak duen hitzarmena mantendu.	Baxua	Amaitzen
E.3.4.8. Eskualdean bigarren Garbigunea ireki, Tolosako San Blasen.	Baxua	Amaituta
E.3.4.9. Konpostaia esperientzi pilotua martxan jarri eta proiektuaren jarraipena burutu.	Baxua	Amaituta
E.5.3.1. Baserrian bertan etxebizitza egiteko aukera zabaldu, gazteak bertan gera daitezzen.	Baxua	Hasita
E.7.2.1. Iraunkortasun eta komunikazio irizpideak eguneroko udal kudeaketan txertatu herritar guztiengana iristeko.	Baxua	Hasita
E.7.3.1. Herri Batzarrak egin behar diren edo ez adostea, eta egitekotan, zertarako, zein maiztasunarekin, eta abar eztabaidatzea	Baxua	Amaituta
E.7.3.2. Udalaren Osoko Bilkuren gai-zerrenda panelean jarri.	Baxua	Amaituta
E.7.3.3. Udalak duen kudeaketarako aukera herritarrei azaldu, eta komunikatu udal zergak kostuekiko zein erlazio duten.	Baxua	Hasita
E.7.4.1. Auzolana berreskuratzeko herritarrak prest ote dauden jakin.	Baxua	Hasita

Epea: Ertaina

Ekintza	Lehentasuna	Ezartze-maila
E.1.1.1. Herritarrek etorkizunera begira nolako herria eduki nahi luketen hausnartzeko/eztabaidatzeko bilera irekiak antolatu.	Altua	Aurreratuta

EKINTZEN EZARTZE-MAILA, EPEAREN ETA LEHENTASUNAREN ARABERA

Epea: Ertaina

Ekintza	Lehentasuna	Ezartze-maila
E.1.2.1. Herrian eskaini nahi diren oinarritzko zerbitzuak zeintzuk diren definitu.	Altua	Amaitzen
E.4.1.1. Jarduera ekonomikorik gabeko herri bat nahi den, edo jarduera ekonomikoak sustatu nahi badira, zeintzuk bultzatu nahi diren eztabaidatu eta adostu.	Altua	Hasteko
E.1.1.4. Udalerrian egiten diren etxebizitza tasatuen inguruan herritarren batek egindako salaketa baten aurrean udalak emango dituen pausuak arautu.	Baxua	Hasteko
E.1.2.2. Oinarritzko produktuak edukiko dituen denda bat irekitzearen bideragarritasuna aztertu, agian beste zerbitzu bati lotua (taberna?).	Baxua	Aurreratuta
E.1.4.3. Osasun arloko beste zerbitzuak (podologoa, masajista...) eskaini.	Baxua	Hasita
E.1.4.4. Balioanitzeko eraikinean hirugarren adinekoentzat topaleku bat sortu, bertan antolatuko diren ekintzen plangintza bat definituz urtero.	Baxua	Hasteko
E.1.5.4. Herriko jaietan herriko gazteentzat aktibitateak gazteek antola ditzatela bultzatu.	Baxua	Amaitzen
E.1.5.6. Elkarte Gastronomiko Kulturalak (soziedadeak) ekintza gehiago presta ditzala.	Baxua	Amaitzen
E.1.5.8. Landa eremuko kulturari loturiko ekintzak antolatu.	Baxua	Aurreratuta
E.4.1.2. Herritarrek sortutako enpresa txikien ezarpena erraztu, etxeen azpian tailerrak edo antzekoak jartzea baimendu eta arautuz.	Baxua	Hasteko
E.4.1.3. Herritarrei zerbitzuak herriko langileen bidez eman, ahal dela.	Baxua	Hasteko
E.4.1.4. Udalak eskaintzen dituen zerbitzu guztien inguruko informazioa eman herritarrei, gai horien inguruko enpresa txikiren bat sortuko balitz, lanak enpresa horiei kontratatzeke aukera egon zitekeela azaltzeko.	Baxua	Aurreratuta
E.5.1.2. AASSen berrikuspenean lurzoru urbanizagarri berria kalifikatzerakoan iraunkortasun irizpideak kontutan izan, alternatiba desberdinak eta goi mailako planeamenduaren xedapenak gogoan hartuz.	Baxua	Hasteko
E.5.2.1. Ustiategi ekologikoak bultzatzeko, hobariak ezarri.	Baxua	Hasita
E.5.4.1. Turismoa bultzatzeko, nekazalturismoa ezartzen duenari hobariak eskaini.	Baxua	Aurreratuta

EKINTZEN EZARTZE-MAILA, EPEAREN ETA LEHENTASUNAREN ARABERA

Epea: Ertaina

Ekintza	Lehentasuna	Ezartze-maila
E.7.1.1. Udal eraikinen eta udalak eskaintzen dituen zerbitzuen inguruko arriskuen azterketa burutu, eta kudeaketa egokia bermatu.	Baxua	Amaituta

Epea: Luzea

Ekintza	Lehentasuna	Ezartze-maila
E.1.3.1. Haurrentzat lehen mailako ikasketak herrian ezarri.	Altua	Amaitzen
E.3.2.3. Baso eta nekazal errekurtsioak energia lortzeko erabiltzeko aukerak aztertu.	Baxua	Hasteko
3.4.10. Herrian zakurren kakak sortzen duten arazoa handiagotzen ari dela eta konponbideak topatu beharra dago.	Baxua	Hasita
E.3.5.1. Silo bolen plastikoak erre ez daitezen eta hauen bilketa zerbitzua ezagutarazteko kanpaina burutu, Tolomendiren eskutik.	Baxua	Aurreratuta
E.5.1.1. Ernio aldeko lurjabeen kooperatiba sortzeko saiakeraren egokitasuna eta bideragarritasuna aztertu.	Baxua	Hasteko